

**DEIALDIAK, BARAÑAINGO UDALEKO KULTURA DINAMIZATZAILE LANPOSTUA ALDI
BATERAKO BETETZEKO EUSKARAZ BADAKITEN HAUTAGAIEN BI ZERRENDA
OSATZEKO**

Barañaingo Udalean dauden langile-premiak ikusita, bi deialdi egin behar dira, hautaprobez bidez, Kultura Dinamizatzaile lanpostua prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran betetzeko hautagaien zerrenda bat eratzeko, eta lanpostu horren aldi baterako kontratazioarako hautagaien zerrenda bat, aipaturiko lanpostuaren inguruan sor daitezkeen premiak estaltzeko.

Deialdiaren xedea, egin beharreko hautaprobez bidez, lanpostuak aldi baterako estaltzeko hautagaien bi zerrenda egitea da: lehen zerrenda, Barañaingo Udaleko plantillako langileekin, eta bigarrena, aurreko pertsonal finkoko zerrendarekiko eta aurreko kontratazio-zerrendekiko izaera subsidiarioa izango duena eta Barañaingo Udaleko plantillako langileekin zerikusirik izango ez duena.

Barañaingo Udalaren zerbitzura dauden Langileen Hitzarmen Kolektiboko 25. artikuluan xedatutakoaren arabera, "aldi baterako kontratazioarako zerrendak egiteko deialdiak onartzen direnean, udalak hautaprobetarako deialdia egingo du plantillako langile finkoen artean prestakuntzako hautagaien zerrendako osatzeko, 96/1997 Foru Dekretuaren eta 199/2004 Foru Aginduaren aurreikuspenekin bat etorritik".

Apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretuan xedatuarekin bat, aldi baterako kontratazioaren aurretik, Administrazioak langile finkoei eskainiko dizkie estali nahi dituen lanpostuak eta, xede horretarako, prestakuntzako hautagaien zerrendak egiteko behar diren hautaprobez deialdia egingo du.

Azaldutakoaren arabera eta Barañaingo Udalaren zerbitzura dauden langileen Hitzarmen Kolektiboan, apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretuan eta Nafarroako Gobernuko Presidentzia, Justizia eta Barne Sailburuaren abenduaren 30eko 199/2004 Foru Aginduan aurreikusitakoaren arabera, eta Nafarroako Administrazio Publikoetan Sartzeko Araudia onartzen duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuko 42.2 c) artikuluan aurrekusiarekin bat etorritik, honako hauek iragartzen dira

DEIALDIAK,

-I-

Deialdien xedea

Lehena.- Arau orokorrak.

- 1.1. Deialdi hauen xedea da, oposizio bidez, Barañaingo Udaleko Kultura Dinamizatzaile lanpostua betetzeko euskara badakiten hautagaien zerrenda eratzea.
- 1.2. Lanpostuak B mailako ordainsariak izango ditu, Barañaingo Udalaren, hango langile funtzionarioen eta hango kontratatu administratiboen arteko Enplegu-baldintzen akordioan (177 zenbakiko NAO, 2018ko urtarrilaren 4koa) ezarritakoaren arabera, eta lanpostuaren % 20ko osagarria izango du, Barañaingo Udaleko Plantilla Organikoan jasotakoaren arabera.
- 1.3. Lana lanaldi osoan egingo da, Barañaingo Udaleko langileentzat indarrean dagoen Lan Egutegiaren arabera. Ordutegia zerbitzuaren premietara egokituko da une oro, eta noiznahi aldatu ahal izango dute organo administratibo eskudunek zerbitzuaren premiek hala eskatzen dutenean.
- 1.4. Erregimen juridikoa Kultura Dinamizatzaile gisa egindako aldi baterako kontratazio administratiboa izango da, Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean afiliatuta.

1.5. Lanpostuak euskarako nahitaezko hizkuntza-profila du, C1 maila.

Bigarrena.- Lanpostuaren profila.

Aldi baterako bete beharreko lanpostuaren berezko funtzioak Barañaingo Udaleko Plantilla Organikoan 8.3 gisa adierazitako lanpostuarekin zerkusia dutenak dira, hain zuzen ere, udal-organo eskudunek une bakoitzean adierazten dituenak, eta bereziki eta zehaztasun-asmorik gabe honako hauek:

- Kulturako Zinegotzi Ordezkariekin batera kultura-jardueren eta jarduera soziokulturalen programa eta bere aurrekontua antolatzea.
- Kultura-programa hori kudeatzea.
- Programa horri buruzko urteko memoria eta bere adierazpen ekonomikoa egitea.
- Gobernu Batzordearen oniritzia jaso behar duten txosten osoak prestatzea.
- Kultura kudeatzeko zentroari atxikitako ondasunak eta eraikinak kontrolatzea, haien erabilerari eta mantentzeari buruz eta, batik bat, hirugarrenei noiz lagako zaizkien informatuz.
- Dagokien udal-organoek gainbegiratuta, kultura kudeatzeko zentroaren eskumeneko espedienteak ordenatzea eta izapidetzea (bereziki, diru-laguntzak, erosketak edo kontratazioak).
- Udal-erakundeekin eta herritarrekin harremanak izatea hiriko kultur programak koordinatzeko.
- Proiektuen finantzaketan parte hartuko duten erakundeak bilatzen laguntzea.
- Partekatutako, ibiltaritzako edo beste pertsona juridiko publiko edo pribatuekin komunean egindako programak ezartzea.
- Bere mailan eta kategorian eskatzen zaizkion ataza tekniko guztiei buruzko aholkuak ematea eta egikaritzea.

Hirugarrena.- Eratutako zerrenden indarraldia.

Aldi baterako kontrataziorako hautagaien zerrendak, deialdi hauen bidez xedatuko direnak, gutxienez bost urtez egongo dira indarrean, edo hura agortu arte, lanpostua behin betiko betetzeko hautaketa-prozedura espezifikoak egiten hasi arte edo aldi baterako kontratazio-zerrenda berri bat eratu arte.

-II-

Plantillako langile finkoen artean prestakuntzako hautagaiak aldi baterako kontratatzeko hautagai-zerrenda osatzeko deialdia, 96/1997 Foru Dekretuaren eta 199/2004 Foru Aginduaren aurreikuspenekin bat etorriz.

Deialdia **OINARRI** hauek arautuko dute:

Lehena.- Deialdiaren xedea

Plantillako langile finkoen artean, hautaprobeen bidez, prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran hautagai-zerrenda osatzeko deialdia iragartzen da, 96/1997 Foru Dekretuaren eta 199/2004 Foru Aginduaren aurreikuspenekin bat etorriz, Kultura Dinamizatzaile gisa udaleko Plantilla Organikoko 8.3 lanpostua betetzeko, B mailarekin eta C1 hizkuntza-profilarekin, Barañaingo Udalean sortzen diren premiei estaldura emateko xedez.

Bigarrena.- Eskakizunak.

2.1 Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den datan, parte hartu nahi dutenek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Barañaingo Udalaren zerbitzura dagoen langile finkoa izatea, eta gehieneko prestakuntza-aldiaren eskubidea agortuta ez izatea.
- b) Bere lanpostuan gutxienez hiru urtez lanean aritu izatea.

- c) Borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotea.
- d) Maila ertaineko edo goi-mailako unibertsitate-titulua izatea, edo eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean lortzeko moduan egotea.

Atzerrian lortutako tituluen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria izan behar da edo notarioak edo administrazioak konpultsatutako haren kopia.

Ikasketa baliokideak argudiatzen dituzten hautagaiak baliokidetasun hori aitortzen den legezko edo erregelamenduzko xedapena aipatu beharko dute edo Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak xede horretarako emandako ziurtagiria aurkeztu.

- e) Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailako euskararen ezagutza edo EGA Euskararen Gaitasun Agiria egiaztatzen duen titulua edo ziurtagiria izatea.

Hizkuntzaren ezagutza-maila hori Euskarabidea Euskararen Nafar Institutuak xede horretarako egindako probaren bidez ere egiazta daiteke. Kasu horretan, proba egin nahi duten hautagaiak deialdian parte hartzeko eskabide orokorrean adierazi behar dute xede horretarako prestatutako tokian. Hautaketa-prozedurako oinarri erkideetako seigarren oinarriko 6.2 atalean aurreikusitako probaren aurretik egingo da proba hori.

- f) Prestakuntzako lehen aldiko hautagaien beste zerrenda batean ez egotea.

2.2 Deialdi honetako 2.1. oinarrian jasotako eskakizun guztiak betetzea, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denerako bete bete behar direla ulertzeaz gain, deialdiaren unean eta prestakuntza-aldian ere mantendu behar dira.

Hirugarrena.- Hautaketa-prozesuaren garapena eta balorazioa.

Hautaketa-prozesua deialdi honek onartutako bi deialdien arau komunetan xedatutakoaren arabera egingo da.

Laugarrena.- Prestakuntzako hautagaien deialdia.

Deia eta, behar izanez gero, prestakuntzarako zerbitzu berezien egoerako aitortpena deialdi honetan eta aplikazioko gainerako araudian ezarritakoaren arabera egingo dira.

-III-

Administrazio-araubidean hautagaiak aldi baterako kontratatzeko hautagai-zerrenda osatzeko deialdia, Kultura Dinamizatzaile gisa udaleko Plantilla Organikoko 8.3 lanpostua betetzeko, B mailarekin eta C1 hizkuntza-profilarekin, Barañaingo Udalean sortzen diren premiei estaldura emateko xedez.

Deialdia **OINARRI** hauek arautuko dute:

Lehena.- Deialdiaren xedea

Hautaprobaren bidez eta ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuko 42.2.d) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Kultura Dinamizatzaile gisa udaleko Plantilla Organikoko 8.3 lanpostua betetzeko, B mailarekin eta C1 hizkuntza-profilarekin, hautagai-zerrenda osatzeko deialdia iragartzen da, Barañaingo Udalean sortzen diren premiei estaldura emateko xedez.

Aldi baterako kontratatzeko hautagaien zerrenda hori lehendik dagoen edo etorkizunean osa daitekeen langile finkoen beste edozein zerrendarekiko izaera subsidiarioa izango du, apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Zerrendaren kudeaketa aldi baterako kontratazioaren kudeaketa-arauak onartzen dituen Presidentzia, Justizia eta Barne Sailburuaren abenduaren 31ko 814/2010 Foru Aginduan xedatutakora doitu da.

Bigarrena.- Parte-hartzaileen eskakizunak.

2.1.- Prozesu honetan onartua izateko, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean honako baldintza hauek bete behar dituzte hautagaiek:

- a) 16 urte beteta izatea eta erretiro-adinera iritsi gabe egotea.
- b) Espainiarra, Europar Batasuneko estatu kide bateko herritarra edo Europako Erkidegoak egin eta Espainiak berretsitako Nazioarteko Itunak aplikatu daitezkeen eta langileen zirkulazio askea aplikatu daitezkeen esparruko estatu bateko herritarra izatea; espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu kideetako herritarren ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude, eta haien ondorengoak eta haien ezkontideen ondorengoak, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude, 21 urte baino gutxiago badituzte edo gehiago izanda ere haien kontura bizi badira.
- c) Dagozkion funtzioak betetzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.
- d) Maila ertaineko edo goi-mailako unibertsitate-titulua izatea, edo eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean lortzeko moduan egotea. Behar izanez gero, baliokidetasuna hautagaiak aurkeztu beharko du Administrazio eskudunak xede horretarako egindako ziurtagiriaren bidez.

Atzerrian lortutako tituluen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria izan behar da edo notarioak edo administrazioak konpultsatutako haren kopia.

Eskatutako kategorian aritzeko aukera ematen duten ikasketa baliokideak argudiatzen dituzten hautagaiek baliokidetasun hori aitortzen den legezko edo erregelamenduzko xedapena aipatu beharko dute edo Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak xede horretarako emandako ziurtagiria aurkeztu.

- e) Funtzio publikoetarako desgaituta edo zigortuta ez egotea eta zerbitzutik bereizita edo Administrazio Publiko batetik diziplinaz egotzita ez egotea. Espainiarrak ez diren hautagaiek euren estatuan funtzio publikorako sarbidea izatea galarazten duen diziplina-zehapenik edo zigor-kondenarik ez duela adierazteko zinpeko aitortpena edo promesa aurkeztu beharko dute.
- f) Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailako euskararen ezagutza edo EGA Euskararen Gaitasun Agiria egiaztatzen duen titulua edo ziurtagiria izatea.

Hizkuntzaren ezagutza-maila hori Euskarabidea Euskararen Nafar Institutuak xede horretarako egindako probaren bidez ere egiaztatu daitezke. Kasu horretan, proba egin nahi duten hautagaiek deialdian parte hartzeko eskabide orokorrean adierazi behar dute xede horretarako prestatutako tokian. Hautaketa-prozedurako oinarri erkideetako seigarren oinarriko 6.2 atalean aurreikusitako probaren aurretik egingo da proba hori.

2.2.- Aurreko eskakizunak eskaerak aurkezteko epea amaitzean izan behar dira eta prozeduran zehar mantendu.

2.3.- Eskakizun horiek guztiak dokumentu bidez egiaztatu behar dituzte aldi baterako kontratatzeko hautatu eta deitutako hautagaiek adierazten zaien unean eta kontratua formalizatu aurretik.

2.4.- Dokumentu horiek aurkezten ez dituztenak, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kausa izan ezik, ezingo dira kontratatu, eta baliogabetuta geratuko dira haien jarduketara guztiak, parte hartzeko eskaeran faltsukeria erortzeagatik izan dezaketen erantzukizunaren kalterik gabe.

Hirugarrena.- Hautaketa-prozesuaren garapena eta balorazioa.

Hautaketa-prozesua deialdi honek onartutako bi deialdien arau komunetan xedatutakoaren arabera egingo da.

Laugarrena.- Prestakuntzako hautagaien deialdia.

Hautatutako hautagaiei sortzen diren premien arabera deitu ahal izango zaie, deialdi honetako oinarrietan eta aplikazioko gainerako araudian xedatutakoaren arabera.

-IV-

Hautaketa-prozeduraren oinarri komunak.

Lehena.- Eskabideak.

Deialdian parte hartu ahal izateko eskaerak Barañaingo Udaletxeko plaza z/g helbidean kokatutako Barañaingo Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu beharko dira (Herritarren Arretarako Bulegoa, 08:30etik 14:00etara) edo legez aurreikusitako edozein bitartekoren bidez.

Eskabidea Posta bulego batean aurkeztea aukeratzen bada, gutun-azal irekian aurkeztuko da eskaera Postako langile batek data eta zigilua jar diezaion ziurtatu aurretik.

Eskaerek I. eranskinetako eredura doitu behar dute prestakuntzako hautagaien kasuan eta II. eranskinetako eredura aldi baterako kontrataziorako hautagaien kasuan, eta Udaletxeko plaza z/g helbidean dagoen Barañaingo Udaleko Herritarren Arretarako Bulegoan banatuko dira. Internet bidez ere lor daitezke, hain zuzen ere, www.baranain.es eta www.baranain.eus helbideetan.

Parte hartzeko eskaeran, eskaerak aurkezteko adierazitako epea agortzeari buruz eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi behar dute hautagaiek.

Parte hartzeko eskaerarekin batera, hautagaiek Nortasun Agiri Nazionalaren eta eskatutako titulazioaren edo eskaerak aurkezteko epea amaitzen den datan lortzeko moduan dagoela egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia ere aurkeztu behar dute, eta baita ES 84 2100 5181 14 2200064922 zenbakiko kontuan egindako diru-sarreraren bidez espedientea eta azterketa-eskubideak formalizatzeko tasa ordaintzeko 19,20 euro ordaindu izanaren ordainagiria ere. Tasa ordaindu gabe izateak hautagaia kanporatzea ekarriko du.

Eskaera Herritarren Arretarako Bulegoan zuzenean aurkezten duten hautagaiek une horretan bertan eskudirutan egin dezakete tasaren ordainketa.

Bigarrena.- Eskaerak aurkezteko epea.

Eskaerak 15 egun balioduneko epean aurkeztu behar dira, deialdiaren iragarkia NAOn argitaratzen denetik kontatzen hasita. Eskaerak aurkezteko adierazitako epea luzaezina izango da.

Hirugarrena.- Behin-behineko zerrendak.

Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, Barañaingo Udaleko Alkatetzak ebazpena emango du onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrendak onartuz, eta Barañaingo Udaleko iragarki-taulan eta udalaren webgunean argitaratuko dira.

Argitalpen-data horretatik aurrera eta hurrengo bost bost egun balioduneko epean, hautagaiek erreklamazioak egiteko edo eskaerako akatsak zuzentzeko aukera izango dute.

Laugarrena.- Behin betiko zerrendak.

Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta haiek ebatzi ondoren, Barañaingo Udaleko Alkatetzak Ebazpena emango du onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrendak onartuz, eta Barañaingo Udaleko iragarki-taulan eta udalaren webgunean

argitaratuko dira deialdi honetako zortzigarren oinarrian aurreikusitako hautaketa-proba egiteko datarekin eta lekuarekin batera.

Onartuen zerrendan azaltzeak ez du aurretik epaitzen pertsona interesdunei deialdi honetan eskatutako eskakizunak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Kontrataziorako deitzean hautagaiek aurkeztu behar duten dokumentazioa aztertzen denean eskatutako eskakizunen bat denboran edo forman ez dutela betetzen ondorioztatzen bada, pertsona interesdunek deialdi honetan parte hartzearen ondorioz izan ditzaketen eskubide guztiak galduko dituzte.

Bosgarrena.- Kalifikazio-epaimahaia.

5.1. Kalifikazio-epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

- **Lehendakaria:** Oihane Indakoetxea Barbería, Barañaingo Udaleko alkatea.
- **Kide-Idazkaria:** Blanca De la Fuente Iparraguirre, HABko ofizial administratiboa.
- **Kidea:** Ana Errondosoro Otaegui, Barañaingo Udaleko euskara teknikaria.
- **Kidea:** Miguel A. Zuasti Ansò, funtzionarioen ordezkari gisa.
- **Kidea:** Belén Mutuberria Vergara, Nafarroako Kultura Kudeaketako Profesionalen Elkarteko ordezkari gisa.

5.2. Kalifikazio-epaimahaiko kideek uko egin behar diote euren karguari, eta Barañaingo Udalari jakinarazi, legez aurreikusitako arrazoiak izaten direnean.

Halaber, hautagaiek epaimahaiko kideak ez onartzeko eskubidea dute baldintza horiek izaten direnean.

Legez ezarritako uko egiteko eta ez onartzeko arrazoiak aplikatzean aldaketaren bat gertatuko balitz epaimahaiaren osaeran, aldaketa hori onartutako eta baztertutako hautagaien zerrendekin batera aditzera emango da.

5.3. Epaimahaia hautaproba baino lehen eratu behar da.

Epaimahaia ezingo da eratu eta ezingo du epaia eman bere kideen gehiengoa ez bada aurkezten.

Halaber, epaimahaia baliozkotasunez eratzeko, bertan egon behar dute Lehendakariak eta Idazkariak.

5.4. Epaimahaiak ebatziko ditu, gehiengo bidez, deialdiaren oinarrien interpretazioaren eta aplikazioaren inguruan planteatzen diren auziak.

5.5. Epaimahaiak aholkulari espezialistak ekar ditzake probarako. Aholkulari horiek euren espezialitate teknikoetara mugatuko dira eta espezialitate horietan oinarrituta lagunduko diote epaimahaiari.

Seigarrena.- Hautaketa-espeditentaren garapena.

6.1.- Hautagaiei Barañaingo Udalaren Iragarki Taulan eta webgunean jarritako iragarkiaren bidez egingo zaie probarako deialdia. Hori nahikoa izango da deituta daudela ulertzeko.

6.2. Hautaketa-prozesuak ariketa bakarra izango du, teoriko-praktikoa. Idatziz erantzun beharko zaio gai-zerrenda erantsiko gaiei buruzko 30 galdera teoriko-praktikoz osatutako galdetegiari.

Galdetegiko galdera guztiek hiru aukera izango dituzte erantzunetan, baina bakarra izango da baliagarria. Erantzun baliagarri bakoitzari 1 puntu emango zaio eta erantzun okerrek 0,50eko zigorra izango dute galderen balorazioan. Galdera guztien banakako balorazioa berdina izango da. Hautagaiek laurogeita hamar minutu izango dituzte ariketa egiteko.

6.3. Ariketak, gehienez, 30 puntuko balorazioa izan dezake, eta 15 puntura iristen ez diren hautagaiak kanporatuta geratuko dira.

6.4. Ariketa egiteko gutun-azal itxien sistema erabiliko da.

6.5. Ariketaren kalifikazioa amaitutakoan, Epaimahaiak ariketa egindako lekuan eta Barañaingo Udaleko Iragarki Taulan jarriko du ariketa gainditu dutenen zerrenda lortutako kalifikazioekin. Aipaturiko zerrenda Internet bidez ere kontsulta daiteke, hain zuzen ere, www.baranain.es eta www.baranain.eus helbideetan.

6.6. Ariketarako deialdia dei bakarraren bidez egingo da. Hautagaiek Nortasun Agiri Nazionalarekin, pasaportearekin edo gidabaimenarekin joan behar dute deialdira eta oposiziotik kanpo geratuko dira azaltzen ez diren edo beraien nortasuna aipaturiko agiritako baten bidez egiaztatzen ez duten hautagaiak.

Zazpigarrena.- Onartuen zerrenda eta deia.

7.1. Hautaketa-prozesua amaitutakoan, Epaimahaiak Barañaingo Udaleko Iragarki Taulan eta probak egindako lekuan jarriko du onartuen zerrenda lortutako puntuazio-ordenaren arabera eta Tokiko Gobernu Batzordeari igorriko dio behin betiko onespina eman diezaion hautaketa-prozesuaren espediente osoarekin batera.

Bi hautagaik edo gehiagok puntuazio bera lortzen badute, berdinketa adin handiena duenaren alde desegingo da.

7.2. Onartutako hautagaiei sortzen diren premien arabera deitu ahal izango zaie, deialdi honetako oinarrietan eta aplikazioko gainerako araudian xedatutakoaren arabera.

7.3. Pertsona kontratatuei Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta emango zaie eta afiliatu egingo dira, eta haien kontura izango da dagokien kuota eta PFEZ atxikipena dagokien zenbatekoan.

7.4. Horrela eraturako zerrendaren kudeaketa Barañaingo Udaleko Giza Baliabideen arloari dagokio.

7.5. Atal honen babespean eraturako zerrendak indarrean egongo dira beste deialdi bat ebatzi arte, eta kasu horretan, orduan eratzen direnen osagarriak izan daitezke. Bestela, zerrenda onartzen denetik, gehienez, 5 urtez egongo dira indarrean.

Zortzigarrena.- Baliabideak.

Deialdi honen, bere oinarrien eta deialdia aplikatzeko ekintzen aurka honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Berraztertze errekurtsioa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean Ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, errekurtsioa jarri zaion ekintza edo akordioa jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik bi hilabete igaro baino lehen.

c) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, errekurritutako ekintza edo akordioa jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hilabete igaro baino lehen.

Kalifikazio Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsioa jar daiteke deialdia egin duen udal-organoren aurrean errekurritutako egintza edo akordioa jakinarazi eta biharamunetik hilabete igaro baino lehen.

Barañainen, 2018ko martxoaren 12an.

I. ERANSKINA, PRESTAKUNTZAKO HAUTAGAIENTZAT

.....JAUNAK/ANDREAK		
NAN/NORTASUN-AGIRIA	JAIOTZA-DATA [URTEA/HILA/EGUNA]	JAIOTERRIA
HERRITARTASUNA	EGUNGO HELBIDEA [KALEA, ZENBAKIA, ESKAILERA, SOLAIRUA]	
POSTA-KODEA / UDALERRIA	TELEFONOAK	POSTA ELEKTRONIKOA

ADIERAZTEN DU:

Ez duela kargua betetzea galarazten dion gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik.

Ez duela indarreko xedapenetan ezarritako ezgaitasunik.

Ez dutela kanporatu, diziplinazko espediente baten bidez, edozein Administrazio Publikotako zerbitzutik, eta ez dutela egotzi diziplinazko zigor bidez eta ez dagoela ezgaituta funtzio publikoak betetzeko.

Baduela deialdian eskatutako titulazioa.

Betetzen dituela eskaerak aurkezteko adierazitako epea agortzeari buruz eskatutako baldintza eta eskakizun guztiak.

Desgaitasuna duela eta, horregatik, adierazitako arrazoen ondoriozko egokitzapenak eskatzen dituela. (Beste folio batean zehaztuko dira eskatutako egokitzapenak eta eskaeraren arrazoiak).

Eskaerarekin batera honako hauen fotokopia aurkezten duela:

- Nortasun Agiri Nazionala.
- Aipaturiko titulu akademikoa.
- Espedientea eta azterketa-eskubideak formalizatzeko tasa ordaintzeko 19,20 euro ordaindu izanaren ordainagiria.

Deialdian eskatutako baldintzetan euskararen ezagutza egiaztatzeko xedeetarako:

- Egiaztatzeko dokumentazioa aurkezten du
- Euskararen ezagutza-probak egitea eskatzen du.

ESKATZEN DU:

Hautapoben bidez, eta aldi baterako kontratazio bidez, Kultura Dinamizatzaille gisa Barañaingo Udalaren zerbitzura lan egiteko hautagaien zerrenda bat eratzeko deialdian onartua izatea.

Barañainen, 2018koren(e)an
(Sinadura)

II. ERANSKINA, ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO HAUTAGAIENTZAT

.....JAUNAK/ANDREAK		
NAN/NORTASUN-AGIRIA	JAIOTZA-DATA [URTEA/HILA/EGUNA]	JAIOTERRIA
HERRITARTASUNA	EGUNGO HELBIDEA [KALEA, ZENBAKIA, ESKAILERA, SOLAIRUA]	
POSTA-KODEA / UDALERRIA	TELEFONOAK	POSTA ELEKTRONIKOA

ADIERAZTEN DU:

Ez duela kargua betetzea galarazten dion gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik.

Ez duela indarreko xedapenetan ezarritako ezgaitasunik.

Ez dutela kanporatu, diziplinazko espediente baten bidez, edozein Administrazio Publikotako zerbitzutik, eta ez dutela egotzi diziplinazko zigor bidez eta ez dagoela ezgaituta funtzio publikoak betetzeko.

Baduela deialdian eskatutako titulazioa.

Betetzen dituela eskaerak aurkezteko adierazitako epea agortzeari buruz eskatutako baldintza eta eskakizun guztiak.

Desgaitasuna duela eta, horregatik, adierazitako arrazoen ondoriozko egokitzapenak eskatzen dituela. (Beste folio batean zehaztuko dira eskatutako egokitzapenak eta eskaeraren arrazoiak).

Eskaerarekin batera honako hauen fotokopia aurkezten duela:

- Nortasun Agiri Nazionala.
- Aipaturiko titulu akademikoa.
- Espediente eta azterketa-eskubideak formalizatzeko tasa ordaintzeko 19,20 euro ordaindu izanaren ordainagiria.

Deialdian eskatutako baldintzetan euskararen ezagutza egiaztatzeko xedeetarako:

- Egiaztatzeko dokumentazioa aurkezten du
- Euskararen ezagutza-probak egitea eskatzen du.

ESKATZEN DU:

Hautapoben bidez, eta aldi baterako kontratazio bidez, Kultura Dinamizatzaile gisa Barañaingo Udalaren zerbitzura lan egiteko hautagaien zerrenda bat eratzeko deialdian onartua izatea.

Barañainen, 2018koren(e)an
(Sinadura)

Datuen babesa. Datu Pertsonalak babesteko 1999-XII-13ko Lege Organikoan xedatua betez, inprimaki honetan emandako datu pertsonalak udal-eskumenak hautaketa-prozesuan erabiltzeko soilik erabiliko direla eta Barañaingo Udaleko datu-basea osatzen duten fitxategietan txertatuko direla jakinarazten zaizu, eta horren aurrean sarbide-, zuzenketa-, ezeztatze- eta aurkaritza-eskubideak gauzatu ahal izango dituzula Erregistro Nagusira jota (Herritarren Arretarako Bulegoa, Udaletxeko plaza z/g).

III. ERANSKINA GAI-ZERRENDA

1. gaia.- Barañaingo Udalak azken bi urte hauetan egindako kultura-jarduerari buruz:

- Hedapena, publizitatea, arreta eta ikusleen kudeaketa kultura-jardueretan.
- Jai-jarduerak eta jai- eta kultura-arlokoak programatzea eta egikaritzea.
- Kultur-etxe batean jarduerak programatzea eta egikaritzea.

2. gaia.- Barañaingo Udalaren kultura-zerbitzuen antolaketa eta ekipamenduak. Balio anitzeko kultura-ekipamenduak (kultur etxeak) eta ekipamendu espezifikoak (liburutegiak, erakusketa-aretoak, etab.).

3. gaia.- Barañaingo kultur eragileak. Barañaingo kultura-arloko eta arlo soziokulturaleko elkarre-mugimendua udaleko kultura-garapenari eta kultura-ekintzari dagokienez.

4. gaia.- Barañaingo Udaleko udal-ordenantzak:

- Barañaingo Udaleko diru-laguntzak emateko ordenantza arautzailea.
- Barañaingo Udalak antolatutako kultura-arloko ikastaro eta jardueretan sartzeko, izena emateko edo matrikulatzeko ordenantza arautzailea.
- Barañaingo Udaleko kultur aretoak eta kultur etxeak erabiltzeko ordenantza arautzailea.

5. gaia.- Udaleko kultur jarduera finantzatzeko iturriak, publikoa eta pribatuak. Mezenasgoaren Foru Legea.

6. gaia.- Nafarroako toki-erakundeekin lotutako Nafarroako Gobernuako Kulturako Zuzendaritza Nagusiaren deialdiak, programak eta diru-laguntzak.

7. gaia.- 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa:

- I. titulua, prozeduran interesa dutenena
- II. titulua, Herri Administrazioen jarduera.
- IV. titulua, Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenena:
 - o I. kapitulua (prozeduraren bermeak)
 - o III. kapitulua (prozeduraren antolamendua)

8. gaia.- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa:

- I. titulua: Udalerrria Nafarroako Toki Erakunde gisa:
 - o I. kapitulua (Udalerrriak), lehen atala (Xedapen Orokorrak) eta zortzigarren atala (Eskumenak) soilik
- III. titulua: Nafarroako toki-erakundeen funtzionamendu-erregimena. Herritarren informazioa eta parte-hartzea
 - o I. kapitulua (Nafarroako toki-erakundeen funtzionamendua), lehen atala (Xedapen Orokorrak) eta bigarren atala (Udalen funtzionamendua) soilik.
 - o II. kapitulua (Herritarren informazioa eta parte-hartzea)
- IX. titulua: Prozedura eta araubide juridikoa. Nafarroako toki-erakundeen jarduketan aurkaratzea eta kontrola:
 - o I. kapitulua (Prozedura eta araubide juridikoa), lehen atala soilik (Xedapen orokorrak)
 - o II. kapitulua Nafarroako toki-erakundeen jarduketan aurkaratzea eta kontrola: